

EH Bilduk Landakoko proiekturako diru-laguntza galdu izana deitoratu du

EH Bilduk beti lehenetsi ditu diru-laguntza portzentaje altua duten eta ahalik eta pertsona gehienen baldintzak hobetzen dituzten proiektuak

Amurrio. 2025-07-24 | EH Bildu Amurriok PFOS (Obra eta Zerbitzuen Foru Plana) bidez Landako auzorako proiekturako jasotako diru-laguntza galdu izana deitoratu du.

2021ean, Udalak PFOSera aurkezteko Landako auzoko proiektua onartu zuen, 1,2 milioi euroko balioa zuena eta 2025 eta 2026 artean gauzatu beharko zena. Baina gobernu taldeak lan hori bertan behera uztea erabaki zuen eta, horrenbestez, Arabako Foru Aldundiak lan horretarako aurreikusitako 700.000 euroko diru-laguntzari ere uko egin zion.

EH Bilduk eta gobernu taldeak lortutako aurrekontu akordioan, PFOSerako proiektuak elkarrekin adostuko zirela jasota zegoen akordio horren puntu batean. EH Bildu udal taldeak beti izan ditu proiektuak aukeratzeko irizpide berberak, eta horrek, adibidez, anbulatorio zaharreko proiektuari uko egitera eraman zuen. Aurrekari horien eta EH Bilduk adierazitako irizpideen arabera, aurten Landako auzoa berritzeko proiektua aukera egokia zela uste zuten.

Aurrekoetan adierazi bezala, EH Bilduk oraingoan ere gobernu taldearekin batera aurkezteko proiektuak eztabaidatu eta adosteko aukera izango zela pentsatzen zuen. “Gobernu Taldearen aldetik, lehen unetik jakinarazi ziguten proiektuetako bat erabakita zegoela jada, eta horrek edozein gutxieneko adostasun aukera galarazi zuen, Mendiko kaleko lana lehene-tsiz”, adierazi du EH Bildu Amurriok. Mendiko kaleko lan horrek 463.000 euroko kostua du, eta Landako auzoko lan osoak, berriz, 2.000.000 eurokoa. EH Bilduk Landakoko lanari buruz galdetu zuenean, gobernu taldeak erantzun zuen lana udalaren baliabide propioekin egingo zela.

EH Bildurentzat erabaki honek ez du inolako logikarik ikuspegi ekonomikotik, izan ere, bi lan daudenean eta biek diru-laguntza portzentaje bera jasotzeko aukera dutenean, EH Bildu udal taldearen logika da ahalik eta diru-laguntza handiena jasotzea, eta baliabide propioekin ahal den gutxien ordaintzea; hau da, lan handia diruz laguntzea eta kostu txikiagokoa baliabide propioekin egitea. “Uste dugu Amurrioko Udalak ez duela finantza-ahalmenik 2 milioi euroko lan bat baliabide propioekin egiteko, baina bai



duela milioi erdi euroko lan bati aurre egiteko gaitasuna”, adierazi du EH Bilduk.

EH Bildu Amurrio
amurrio@ehbildu.eus

EH Bildu lamenta la pérdida de la subvención para el proyecto de Landako

EH Bildu siempre ha priorizado proyectos con un alto porcentaje de subvención y que mejorasen las condiciones del mayor número posible de personas.

Amurrio. 24-07-2025 | El grupo municipal EH Bildu Amurrio ha lamentado la pérdida de la subvención para el proyecto de Landako procedente del Plan Foral de Obras y Servicios (PFOS).

En 2021 el ayuntamiento aprobó presentar al PFOS la obra del barrio Landako, por valor de 1,2 millones y que se debería haber ejecutado entre 2025 y 2026. Pero el equipo de gobierno renunció a la ejecución y, por lo tanto, también renunció a 700.000€ de subvención que la Diputación Foral de Araba había consignado para dicha obra.

En el acuerdo presupuestario alcanzado por EH Bildu y el equipo de gobierno, uno de los puntos establecía que se consensuaría los proyectos a presentar en el Plan Foral de Obras y Servicios. El grupo municipal EH Bildu, siempre ha tenido los mismos criterios para elegir los proyectos, esto hizo que renunciasen por ejemplo a proyectos como el del ambulatorio viejo. Por estos antecedentes y por los criterios señalados por EH Bildu, creían una buena opción a presentar este año la rehabilitación del barrio de Landako.

Como han señalado anteriormente, EH Bildu podría esta vez debatir y consensuar junto con el equipo de gobierno qué proyectos presentar. “Desde el Equipo de Gobierno, desde un primer momento nos hicieron saber que uno de los proyectos ya estaba decidido, impidiendo cualquier posibilidad de consenso mínimo al priorizar la obra de la calle Mendiko”, señala EH Bildu Amurrio. Dicha obra de Mendiko tiene un coste de 463.000€ frente a los 2.000.000€ que supone la ejecución completa de la obra de Landako. Cuando EH Bildu preguntó por la obra de Landako, el equipo de gobierno contestó que la obra se ejecutaría con fondos propios.

Para EH Bildu esta decisión carece de cualquier lógica desde el punto de vista económico, ya que, si existen dos obras y las dos son susceptibles de recibir el mismo porcentaje de subvención, la lógica del grupo municipal EH Bildu es que recibas la mayor subvención posible para pagar con fondos propios lo menos posible, esto es, que subvenciones la obra



grande y acometas con fondos propios la de menor cuantía. “Si bien creemos que el ayuntamiento de Amurrio no tiene capacidad financiera suficiente para acometer con fondos propios una obra de 2 millones de euros, sí que la tiene para hacer frente a una de medio millón de euros”, comenta EH Bildu.